

LIBURU HAU NOLA SORTU DEN: DATUEN EGUNERATZETIK HIZKUNTZAREN BERPIZTERA / COMMENT CET OUVRAGE A VU LE JOUR : DE L'ACTUALISATION DES DONNÉES À LA RENAISSANCE DE LA LANGUE

Gure unean-uneke jardueretan eta harremanetan edo urteetan zehar egitako ibilbidean, molde bakar batean eta, aldi berean, anitz moldetan agertzen gara eta honela hautematen gaituzte besteek. Jakes Aurnague ez da arau honetaz kanpo gelditu eta beren bidean kurutzatu dutenek, haren izaeraren alderdi desberdinez oroitu dira dudarik gabe: Baionako edo Donapaleuko errugbilaria, Izurako errienta, laborantza irakaskuntzako ibiltaria, lanbide heziketako orientatzailea, edo berdin euskal dantza ikastaldien bultzatzailea bere kolegioan, arrantza eta ihizizalea, xintxuketari paregabekoa, musikazalea... Beste anitzek –gehienek agian– haren biziaren azken zatia diote lehentasuna emanen, eta defenditzen zuen egitasmoan guztiz sartua zen militante zintzoa atxikiko dute gogoan. Ikusmolde horiek, bere biziko hamar bat urte (1970eko hamarkadaren bukaeratik 1987 arte) eskaini zizkion lan saila ilunpean uzten dute maiz, lan horrek alderdi bat baino gehiago lot ditzakeen arren, hala nola lurrarentzat eta gizakiarentzat zuen amodioa, haren hezitzaile lana eta geroagoko militantzia. Euskararen zaintzaren alde buruturiko ekintzez ari naiz: Garazi aldeko hizkuntz-egoeraren azterketa baten egitera bultzatu zuten, baita beste hainbat jardueretan sartzera ere –guraso eta irakasleen ikustera, irratietan mintzatzera, gizartea iratzartzera edota euskararen aldeko eskaria antolatzea–, hitz eta arrazoinen indarrean errotik sinetsiz.

Duela zenbait urte, Erramun Bachoci esker, 1982ko inkestaren izate aitzindariak ohartu nintzen, dela galdekatua izan zen jende multzoarengatik (Garazi aldeko kolegioetako ikasle kasik guztiak), dela aztertuak izan ziren aldagai soziolinguistikoengatik ere (hizkuntz mailaren autoebaluazioa, baita ama-hizkuntza, sexua, eskolatzeko-adina, gune geografikoa, aita-ogibideak, guraso, aita-ama, haurraren edo adiskideekiko hitz-trukaketak...). Egia erran, bazekien Erramunek zertaz mintzo zen: Peyo, anaia ekonomilari-informatikariarekin batera, egitasmo hau hurbiletik segitu zuen eta Jakesen kar hasiberria bideratzen jakin zuen, berea zuen eta duen saileko zenbait ikerketa garrantzitsu irakurtzeko aholkatzen zizkiolarik (besteak beste William F. Mackey, Henri Gobard eta Renzo Titonerrenak). Zirriborro eta eskuizkribuei soako bat eman nien batez, liburu azal baten proiektua eta amaiera testu bat agertu ziren, garai batean Jakesek lan horren zabaltzeko izan zuen itxaropena gogorarazi zidatenak. Gertakari horren ondorioz, hogeitau urte geroago, inkesta osoaren argitaratzeko ideia piztu zitzaidan. Baina hizkuntza eta honen erabilpenaren historia sozialaz gain, zenbatetaraino interesgarriak izan zitezkeen datu horiek gaur egungo behatzailearentzat? Nola asmo hau indarberritu eta 1980ko hamarkadaren hastapenean abiatutako pedagogia eta kontzientiazio lanari jarraipena eman? Betebehar bikoitz honen betetzeko molde bakarra, 1982ko inkestaren pareko beste azterketa bat burutzea zela (2002an) fite ikusi genuen. Hogeitau urte geroago eta «espazio» beraren barnean, 1982an ikertutako aldagaiak neurtu behar ziren, beste alderdi interesgarri batzuk analisisan sartuz bestalde, komeni zenean (adib.: euskarazko hedabideen eragina gazteengan).

Handik landa, talde xume bat osatu zen Erramun Bachocen inguruan. Hastapeneko nahikari harekin berarekin onartu zuen Erramunek egitasmo soziolinguistiko berri horretan sartzeara eta, lehen bezala, haren kalitate zientifikoaz artoski arduratzea. Maia Duguine, hizkuntz-zientzietako hiru garren zikloko ikaslea, proiektu honi gogo handiz lotu zitzaion, lekuan bereko inkestaren egiteko eta datuen tratamendu piztu eta unagarriaren gauzatzeko. 1982ko lanaren arakatzeara eta galdeketa berriaren sortzeara 2001ean iragan ziren. 2002an, Garazi aldeko haurrak eskolatzen dituzten hiru kolegioetan –hau da, Jean de Mayorga (pribatua), La Citadelle (publikoa), eta Manex Erdozaintzi (elkarte-sarea) deitu ikastetxeetan– datuak bildu ahal izan ziren. 2003an, azkenik, uztaturiko xehetasunak landu ziren eta heien azterketa alderatzailea burutu zen 1982ko datuen argitan. Ibilbide bihurri horren ondortik da liburu hau sortu.

Liburu honen lehen parteak, 1982an, kolegioetako ikasleen artean, Jakes Aurnaguek eginiko inkestaren zati nagusiak biltzen ditu. Ikerketa horren bereraketa, egilearen eskuizkribu osagabeen oinarritu da, baita *Berriak* aldizkarian, 1983-1986 artean, agertu ziren hirurogeita sei artikuluetan ere. Testuen sartzeara eta berregituraketak lan luze bat galdegin dute, posible izanen ez zena Maite Ithurbide Eusko Ikaskuntzako idazkariaren laguntza balios eta eraginkorra ukan ez bagenu. Kolegioetako datuetatik aparte (lehenbiziko lau kapituluak) beste bi alderdiren aipatzea interesgarria izan zitekeela iruditu zaigu, hau da, euskarazko eskolaurreko irakaskuntza segitu duten haurrei buruzko inkestaren emaitzak batetik (bosgarren kapitulua), eta euskarak eta frantsesak eskolan eta gizartean ukan lezaketan lekuaren inguruko hausnarketak bestetik (seigarren kapitulua). Irakaskuntza elebiduna bultzatu duten munduan gaindiko saiakerak aipatzen zituzten hamar bat artikulua baztertuak izan dira (Gales, Val d'Aosta, Berlin, Quebec, Miami, Sobietar Errepublikak, Hegoafrikako Errepublikak...): egilearen helburu pedagogikoaren adierazgarri izan arren, doi bat gaudituak edo berdin lekuz kanpo ziruditen. Liburuaren bigarren parteak –Maia Duguinek apailatua– Garazi aldeko kolegioetan 2002an buruturiko inkestaren emaitzak aurkezten ditu, 1982an eskuraturiko neurketekin aldi oroz alderatuz (aitama euskaldunak dituzten familien jokabidea, ibarraren hizkuntz geografia, aitamena ogibideak, aitatxi-amatxien eragina, eskolatzeara, haurrideen arteko harremanak eta, orokorrako, komunikazio-egoerak...) eta arakatuak izan ez ziren alderdiei, ahal denean, zabalduz. Azkenik, Richard Bourhisen eskutik eginiko solas-ondoak, bi inkestak agerturiko emaitza garrantzitsuenak oroitarazten ditu eta etorkizunerako funtsezkoak diren ondorio edo irakaspenak ateratzen. 1982ko lana (lehen parteak) idatzia izan zen bezala –hau da frantsesez– emana izan dela azpimarratzekoa da, euskarazko laburpenak kapitulu bakoitzaren bukaeran erantsiak izan direlarik. 2002ko datuak eta 1982koekilako heien alderatzea (bigarren parteak) euskaraz aurkeztuak izan dira, frantsesezko laburpenak agertuz, hemen ere, atal desberdinen urrentzean. Azkenean, hastapeneko testuak eta amaierakoak bi hizkuntzetan eskainiak dira. Liburu osoa euskaraz eta frantsesez idaztea egokiagoa izanen bide zen. Ordea, biziki pizua eta garestia izanen zela ohartu ginen, gure eskura ziren baliabideak ikusi eta. Ondorioz, erdibideko aterabide bat hautatu dugu eta bi hizkuntzen arteko oreka (edo bederen osagarritasuna) zaintzera entseatu gara, guztiz normala dena elebitasunari buruzko argitalpen batean.

Ikus daitekeenez, lan hau hastapeneko inkestatik baino urrunago doa eta 1982tik 2002ra euskarak, Euskal Herri barnekaldean, izan duen bilakaeraren ikuspegi aski zehatza eskaintzen dio irakurleari. Lehenbiziko partean agertzen diren zenbait ohar 1960ko hamarkadaren hastapenari doazkion heinean, batzuetan ia berrogei urteko denboraldia zabaltzen da gure aitzinean. Ezta-baida antzuetatik urrun, Garazi inguruko ikerketaren eguneratze honek, euskararen gaurko egoeraren neurketa eta haren berpiztearen sustatzeari buruzko hausnarketa lagunduko dituelakoan gara. Alde horretatik, datu objektibo eta zientifiko hauek, erakunde, erabakitzaile, eskolatzaile, ikerlari eta, orohar, Euskal Herritarrei eskainia zaien beste tresna bat osatzen dute. Emaizten aurkezpenean sartu gabe, oraindik beretik erran daiteke Garazi aldean euskarak duen egoera, uste bezain beltza ez bada, elkarteen eremuan (irakaskuntzan, hedabideetan...) eramandako ekimenei zor zaiela gehienbat. Bada garaia bai, botere publikoek ekintza sinbolikoetatik haratago joan daitekeen egiazko hizkuntz politika abian ezar zezaten. Baina bistakoa da bestalde, politika aldarrikatua eta ofiziala ez dela aski eta bakoitzaren partehartzea ezinbestekoa dela euskararen zaintzeko orduan. Gauza hau gogoan –eta bere jatorrizko esanahitik doi bat desbideratuz– Bernat Echapare, Eiheralarreko erretorraren 1545eko neurtitz bat hartu dugu liburuaren titulu gisa, hau diolarik: «Heuscaldun den guïçon oroc altcha beça buruya»¹.

Bururatzeko, proiektu honen inguruan murgildu den talde mugatuaz gain (Erramun Bachoc, Maia Duguine, Maite Ithurbide), haren gauzatzea gisa batez edo bestez lagundu dutenak eskertu nahi nituzke eta bereziki:

- Christine Sempé, Jean de Mayorga Kolegioko zuzendaria, Alain Fariscot, La Citadelle Kolegioko zuzendaria eta Odile Falxa Manex Erdozaintzikoa, 2002an zehar heien ikastetxeetan iragan den datu-bilketa ahalbidetu dutenak

- Hizkuntza Kontseilua eta Euskal Kultur Erakundea, egitasmo honi beren babes ofiziala, burutik buru, eskaintzeagatik eta diruz hornitzeagatik

- Eusko Ikaskuntza, lan honen betearazte eta argitaratzeari laguntza erabakigarria eskaini diona, maila logistikoan eta berdin diru arloan

- Donibane-Garaziko zein Uharte-Garaziko herriko etxeak liburuaren argitalpena lagundu dutenak

- Amaia Bordenave, emaitzen tratamendu estatistikoan bere gaitasunak eskaintzeagatik

- Isabelle Henry (Donibane Photo, Donibane-Garazi) eta Patxi Laskarai (Photo Laskarai, Donibane-Lohizune) argazkilariak, berek egin argazkietarik zenbait gure eskura adeitasunez ezarri dituztenak

1. Jean Haritschelharrek arrazoi osoz erraten duen bezala: «Hirugarren ahapaldiko lehen neurtitz honek mendeetan barna iragaitea merezi du, zinezko gaurkotasuna atxiki duelako. Edozein politikaren oinarrian da, hizkuntzaren alorrean bereziki» (gure itzulpena). *Hommage à Jacques Allières*, 1. liburukia: *Domaines basque et pyrénéen*, Atlantica, 2002, 124. or.

- Richard Bourhis, Montrealean aritzen den Quebeceko Unibertsitateko psikolinguista, lan honen solas-ondoaren idazteko ohorea egin diguna.

Dans ses activités et relations du moment, comme dans son parcours à travers les années, chacun de nous est à la fois unique et multiple et perçu comme tel par les autres. Jakes Aurnague n'a pas échappé à cette règle et ceux qui l'ont croisé sur leur chemin auront probablement retenu de lui des facettes bien distinctes de sa personnalité : joueur de rugby à Bayonne ou à St-Palais, jeune instituteur à Ostabat, formateur itinérant dans l'enseignement agricole, orienteur vers l'enseignement professionnel et technique mais aussi impulsor enthousiaste de cours de danse basque dans son collège, amateur de pêche et de chasse, bricoleur hors pair, mélomane... Beaucoup d'autres – une majorité sans doute – se seront focalisés sur la dernière partie de sa vie et auront gardé l'image d'un militant sincère et totalement dévoué à la cause qu'il défendait. Dans ce panorama, un « chantier » auquel il consacra une décennie (de la fin des années 1970 à 1987) reste souvent dans l'ombre, alors même qu'il constitue le lien et la synthèse entre son amour pour la terre et l'homme, son travail d'éducateur et sa militance ultérieure. Je veux parler de l'action pour la sauvegarde de la langue basque qui amena non seulement Jakes à effectuer un bilan détaillé de la situation linguistique en Garazi mais aussi à rencontrer les parents d'élèves et les enseignants, à s'exprimer dans les radios, à sensibiliser la société et organiser la demande, convaincu qu'il était de la force de la parole et des arguments.

C'est grâce à Erramun Bachoc que je pris conscience, il y a quelques années, du caractère précurseur de l'enquête réalisée en 1982 aussi bien par l'ampleur de la population consultée (pratiquement tous les collégiens du secteur de Garazi) que par le spectre des variables sociolinguistiques traitées (autoévaluation du niveau de langue mais aussi langue maternelle, sexe, âge de la scolarisation, zone géographique, professions des parents, échanges linguistiques avec les parents, grands-parents, frères et sœurs, camarades...). Il est vrai qu'Erramun savait de quoi il parlait : il avait, avec son frère Peyo économiste-informaticien, suivi de près cette aventure et su « canaliser » la fougue néophyte de Jakes en lui conseillant, notamment, plusieurs études de référence dans un domaine dont il était et demeure le spécialiste (parmi lesquelles les recherches de William F. Mackey, Henri Gobard ou Renzo Titone). Un bref retour dans les brouillons et manuscrits et la découverte d'une ébauche de couverture ainsi que d'une conclusion me rappelèrent le « rêve » un temps caressé par Jakes de diffuser plus largement ce travail. Ces divers événements firent tout naturellement poindre l'idée d'une publication intégrale de l'enquête, vingt ans après sa réalisation. Mais, en dehors de l'histoire sociale de la langue et de sa pratique, quel intérêt pouvaient avoir ces données et ces textes pour l'observateur d'aujourd'hui ? Comment redonner vie à ce matériau et prolonger l'entreprise de pédagogie et de conscientisation engagée au début des années 1980 ? L'idée d'effectuer en 2002 une enquête similaire à celle de 1982

s'imposa très vite comme la seule solution susceptible de répondre à cette double exigence. Il s'agirait de mesurer, vingt ans plus tard et au sein du même « espace », les variables étudiées en 1982 et d'élargir, si nécessaire, l'analyse à d'autres aspects dignes d'intérêt (ex : audience des moyens de communication en basque auprès des jeunes).

Dès lors, une petite équipe se constitua autour d'Erramun Bachoc qui s'engagea, avec une volonté intacte, dans cette nouvelle épopée sociolinguistique et devint, comme auparavant, le garant sourcilleux de sa qualité scientifique. Maia Duguine, étudiante en troisième cycle de sciences du langage, nous rejoignit avec enthousiasme pour assurer la réalisation de l'enquête sur le terrain et mener à bien la lourde et pénible tâche d'exploitation des résultats. La consultation du travail de 1982 et la conception d'un nouveau questionnaire occupèrent l'essentiel de l'année 2001. 2002 fut consacrée au collectage des données dans les trois principaux établissements scolarisant les collégiens du bassin de Garazi, à savoir Jean de Mayorga (privé), La Citadelle (public) et Manex Erdozaintzi (associatif). Enfin, l'année 2003 permit de traiter les informations récoltées et d'en faire l'analyse contrastive à la lumière de l'état des lieux établi en 1982. C'est au terme de ce parcours sinueux qu'a pu voir le jour le présent livre.

Dans sa première partie, cet ouvrage rassemble les principaux éléments de l'enquête effectuée en 1982 par Jakes Aurnague auprès des collégiens. La reconstitution de ces recherches s'est basée sur le manuscrit incomplet de l'auteur ainsi que sur soixante-six articles parus entre 1983 et 1986 dans le périodique *Berriak*. Elle a supposé un long travail de saisie et de restructuration des textes qui n'aurait pas été possible sans le concours précieux et efficace de Maite Ithurbide, secrétaire de la Société d'Etudes Basques/Eusko Ikaskuntza. Hormis les données relatives au collège (quatre premiers chapitres), nous avons jugé bon d'intégrer les éléments d'une étude concernant des enfants ayant suivi un enseignement préscolaire en langue basque (cinquième chapitre) ainsi que diverses réflexions sur la place de l'euskara et du français à l'école et dans la société (sixième chapitre). Indiquons qu'une dizaine d'articles relatant des expériences d'enseignement bilingue à travers le monde (Pays de Galles, Val d'Aoste, Berlin, Québec, Miami, Républiques Soviétiques, République Sud-Africaine...) ont été écartés car, s'ils témoignaient de la volonté pédagogique de l'auteur, ils semblaient en partie dépassés ou hors de propos. La deuxième partie de l'ouvrage, préparée par Maia Duguine, présente les résultats de l'étude menée en 2002 dans les collèges du secteur scolaire de Garazi, en les rapprochant systématiquement des mesures obtenues en 1982 (comportement des familles dont les parents sont bascophones, géographie linguistique de la vallée, professions des parents, influence des grands-parents, âge de la scolarisation, échanges entre frères et sœurs et, plus largement, situations de communication...) et en élargissant l'analyse, chaque fois que cela est possible, à des pans non traités alors. Enfin, la postface, confiée à Richard Bourhis, reprend les résultats essentiels livrés par les deux enquêtes et tente d'en tirer les enseignements qui s'imposent pour l'avenir. Il convient d'ajouter que l'étude de 1982 (première partie) a été reproduite telle qu'elle avait été écrite, c'est-à-dire en

français, un résumé en basque ayant été inséré à la fin de chaque chapitre. Les données de 2002 et leur comparaison avec celles de 1982 (deuxième partie) ont été présentées en euskara, un résumé en français figurant ici encore à la fin des diverses sections. Enfin, les textes introductifs et conclusifs sont proposés dans les deux langues. Si la rédaction intégrale de l'ouvrage en euskara et en français eût été souhaitable, elle s'est rapidement avérée extrêmement lourde et coûteuse au vu des moyens disponibles pour cette entreprise. Nous avons donc choisi une solution intermédiaire et veillé à préserver un équilibre (ou, du moins, une forme de complémentarité) entre les deux langues, ce qui est bien naturel dans un ouvrage sur le bilinguisme.

Au-delà de la seule enquête initiale, ce travail offre donc au lecteur une vision assez précise de l'évolution de l'euskara en Pays Basque intérieur de 1982 à 2002. Certaines des observations ponctuelles de la première partie concernant le début des années 1960, c'est parfois une période de quarante ans qui se déploie devant nous. Loin des polémiques stériles, il faut espérer que cette actualisation de l'étude menée en Garazi en 1982 permette de mieux évaluer l'état de l'euskara aujourd'hui et contribue aux réflexions sur les mesures à prendre pour favoriser sa renaissance. Ces données objectives et scientifiques constituent, de ce point de vue, un outil supplémentaire à la disposition des institutions, des décideurs, des éducateurs, des chercheurs et, plus largement, des habitants du Pays Basque. Sans anticiper sur la présentation des résultats, il mérite, d'ores et déjà, d'être souligné que si la situation du basque en Garazi n'est pas aussi noire que l'on aurait pu s'y attendre, cela est largement imputable à des initiatives relevant du domaine associatif (enseignement, moyens de communication...). Il est grand temps qu'une véritable politique linguistique qui dépasse le seul registre des actions symboliques soit mise en place par les pouvoirs publics. Mais il va aussi de soi qu'une politique affichée et officielle n'est pas suffisante et que l'implication de chacune et chacun est nécessaire pour la sauvegarde de l'euskara. C'est dans cet esprit – et en le détournant quelque peu – que nous avons repris, dans le titre de l'ouvrage, le vers de Bernat Echapare, curé de St-Michel-le-Vieux, proclamant en 1545 : « Heuscauldun den guizon oroc altcha beça buruya » (que tous les hommes qui parlent basque lèvent la tête)².

Outre l'équipe resserrée qui a travaillé durant de longs mois sur ce projet (Erramun Bachoc, Maia Duguine, Maite Ithurbide), je souhaiterais, pour terminer, remercier ceux qui, d'une manière ou une autre, ont contribué à sa réalisation et tout particulièrement :

- Christine Sempé, directrice du collège Jean de Mayorga, Alain Fariscot, principal du collège La Citadelle, et Odile Falxa, directrice du collège Manex Erdoaintzi, qui ont rendu possible le collectage des données dans leurs établissements respectifs au cours de l'année 2002

2. Comme l'indique fort justement Jean Haritschelhar : « Ce vers initial de la troisième strophe est digne de traverser les siècles car il est d'une réelle actualité. Il est à la base de toute politique, linguistique en particulier » *Hommage à Jacques Allières*, tome 1 : *Domaines basque et pyrénéen*, Atlantica, 2002, p. 124.

- le Conseil de la Langue Basque et l'Institut Culturel Basque pour leur aval officiel et leur soutien financier d'un bout à l'autre de cette aventure

- la Société d'Etudes Basques/Eusko Ikaskuntza dont l'aide logistique aussi bien que financière a été déterminante au moment de l'exécution de l'étude et lors de sa publication

- les mairies de St-Jean-Pied-de-Port et d'Uhart-Cize qui ont subventionné l'édition de cet ouvrage

- Amaia Bordenave pour nous avoir fait bénéficier de ses compétences dans le traitement statistique des données

- les photographes Isabelle Henry (Donibane Photo, St-Jean-Pied-de-Port) et Patxi Laskarai (Photo Laskarai, St-Jean-de-Luz) ayant mis aimablement à notre disposition plusieurs de leurs créations

- Richard Bourhis, psycholinguiste à l'Université du Québec à Montréal qui nous a fait l'honneur d'écrire la postface de ce travail.

Mixel Aurnague